

Noaua!!



Marijo Sardon, judo taldeko harrijasotzailea



Udarregi ikastolan
matrikulatzeko garaia da

Rafa

iturgindegia



Inaugurazioa
otsailak 28
18h00 - 20h00

martxoaren 1etik aurrera irekita
astelehenetik ostiralera:
10h30-13h30 / 16h30- 19h30
larunbatetan: 10h00- 13h00

Borda berri kalea 1, 1 behea • ☎ 943 36 80 04

Tapak eta aurkibideak, prest

Agur berri dugu 2008 urtean
NOAUA gurek bildutako 2008ko
tapak eta aurkibideak
londoratzeke garaio da. Bereziki
karakirik, azala eta aurkibideak
dun leku utzirik
NOAUA Kultur Distantziagailu



Tapak eta aurkibideak duen
eskututik gurek bildutak
Bereziki eskututik, elda 3/6
urteko bilerak duen leku edo
eskututik, elda 1/20/30
urteko bilerak duen. Kondegailuak
dun leku utzirik. Leunaketa
dun leku utzirik. Hurrengo kondegailuak
berri bilerak duen leku edo
eskututik, elda 3/6 urteko bilerak duen.



Berogailuetarako gasoil zerbitzua prezio onenean



Alkartasuna
Nekazaritza
Kooperatiba
Ekardea



**etxez
etxeko
banaketa**

Eskaerak telefonoz ☎ 943 361 114 edo kooperatiba bertan

Alkartasuna

Alkartasuna Nekazaritza Kooperatiba Ekardea • 943 361 114 • 943 361 114 • 943 361 114

Albisteak iruditan !!

Inauteri festan ere, haur eta gaztetxoek haien txokoa

Bezperan, ikastolan dantzan eta hurrengo egunean, “oka jokoan” eta esku lanetan. Inauterietan ere, gaztetxoek bere lekua izaten dute eta aurtengoa ez da salbuespena izan. Udaberri giroan esnatu zen otsailaren 17a, larunbata. Gurasoek lagunduta, haur eta gaztetxo ugari mozorrotuta frontoira hurbildu ziren. Batzuek sormena eta marrazkiak egiteko trebezia praktikan jarri zituzten. Besteek, taldetan banatuta, “oka jokoan” suertatutako hainbat froga ere gainditu behar izan zituzten. Arratsaldetik aurrera, BTK taldeak eta brasildarrez mozorrotuta zeudenek kolo-rea eta musika jarri zioten zeru ilunari.



Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordaerri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
 943 36 03 21 - elkarte@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkariako koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publikitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORJETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazirako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

UDAL AURREKONTUEKIN BUELTAKA **5. OR.**

KRONISTAK KALEJIRAN **6. OR.**

MARIAJE IMAZEKIN SOLASEAN **8. OR.**

ZUMARTE, ANDOAINGO PIANO JAIALDIAN **10. OR.**

MARIJO SARDONI ELKARRIZKETA **11. OR.**

KORRIKA, MARTXOAREN 24AN **13. OR.**

ARRUTI, ONDO PROFESIONALETAN **15. OR.**



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



AINHOA AZPIROZ

Detalle bat

Erraustegiaren aurkako manifestazioa egin zen egu-nean detalle batekin gelditu nintzen. Atentzioa deitu zidan. Zer izango ote da, garrantzitsua? Oso garrantzitsua? Ala batere garrantzirik gabea? Txikikeria? Kezkagarria? Txorakeria? Kontuan hartzekoa?

Urtarrilak 14, goizeko 11:00ak, erraustegiaren aurkako manifestazioa hasi aurretik frontoi atzea, Intsumiso kalea eta lehengo parkea jendez betetzen.

Eguerdiko 12:00etan, manifestazioa hastearekin batera, kaleak jendez beteta.

Amaieran berdin; frontoia beteta, Intsumiso kalea ere bai eta parke ingurua berdin.

Manifestazioaren amaierako hitzalditxoak bukatu ondoren, frontoia pixkanaka hustuz joan zen. Intsumiso kaleak, parke inguruak eta Bordatxoko errotonda inguruak beteta jarraitu zuten: jendea hizketan, tabernetan zerbait hartzen...

Arratsaldeko 4:00etan, jendea bazkaltzera joana eta kaleak lasaitu egin ziren. Isiltasuna nagusituz joan zen.

Baina hala ere kalea eta inguruak ez zeuden hutsik: lurra paperez, plastikoz eta zikinkeriaz beteta gelditu zen. Nabari zen bai jendea ibili zela.

Ez zen lehenengo aldia, noski. Edozein festa edo jaiegunetan antzekoa gertatzen da. Ikusi besterik ez dago Laurok inguruan sortzen den "poltsa festa".

Beraz, ez da harritzekoa urtarrilaren 14koa ere. Baina pixkat pentsatzen jarrita... erraustegiaren aurkako manifestazioaren ondoren gelditu zen dena zikin-zikin egin da, eta zer pentsatua emateko modukoa da. Jende asko bildu zen "erraustegirik ez, ez hemen ez inon" aldarrikatzera, eta ongi iruditzen zait, bai manifestazioak egitea, bai informazioa ematea, bai hitzaldiak antolatzea... baina horietan esaten dena ez dezala haizeak eraman. Ingurumena, osasuna eta bizitza kalitatea eta estiloa daude jokoan. Gauzak berrerabiltzea, konpostatzea, zabor gutxiago sortzea eta birziklatzea garrantzitsuak baldin badira, lurrera zikinkeriak ez botatzea ere hala izango da.

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Imanol Ubeda - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai - Jose Piñas - Unai Agirre

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: martxoak 2. Idatzia ekartzeko azken eguna: otsailak 26.

teilatuk eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE

Obaba kalea 29 · ASTEASU
© 943 69 68 52 · 620 800 186

txirriStra
KONTSEJU ZAHARRA 13
943 300 400

pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak **TABERNA**

Papera jartzea eta
Pinturak orokorrean

FERNANDO
PINTORAK

943 366 019
943 363 460

Kale Nagusia 1 · USURBIL

ALBISTEAK EDIZIO JARRAITUAN · ALDIZKARIA ON LINE · INKESTAK · FOROAK · POSTA

www.noaua.com
USURBILGO ATARIA

Xabier Olano, udal kontu-hartzailea

“Epaitegiek emandako azken sententziak guztiz bat datoz nire interpretazioarekin”

Udal aurrekontuak hasieraz onartu ziren hilabete hasieran. Beste behin ere, begibistan geratu dira udal gobernuaren eta udal kontu-hartzailearen arteko desadostasunak. Lurraren Udal Ondareari buruzko legea da desadostasunen iturri. Lehengo asteko NOAUA!n, Luismari Ormaetxea alkateak zioen udal kontu-hartzaileak ez zuela legea zuzen interpretatzen. Honi erantzunez, Xabier Olano kontu-hartzaileak dio epaitegiek emandako azken sententziak guztiz bat datozela berak egiten duen interpretazioarekin. Aurreko astean alkatearen balorazioa jaso genuen, honakoan, udal kontu-hartzailearen hitzak bildu ditugu.

NOAUA! Legea zuzen ez duzula interpretatzen dio alkateak azken NOAUA!n. Honi lotuta, nola ulertzen da Cuatrecasas bulegoaren txostena eta zurea bat ez etortzea?

Xabier Olano, udal kontu-hartzailea. Alkatearen ustez teknikari gisa legea ez dut zuzen interpretatzen. Errespetu guztiarekin, alkatea ez da inor hori erabakitzeko. Epaitegiek erabaki beharko luke, kasua balitz. Eta epaitegiek emandako azken sententziak guztiz bat datoz nire interpretazioarekin. Duela gutxi Errenteriako Udalaren aurrekontuak bertan behera utzi ditu Euskal Herriko Epaitegi Nagusiak, Lurraren Udal Ondarearen legea errespetatzen ez dutelako.

Bestalde, nire txostena eta Cuatre-

casasena oso desberdinak dira. Nire txostena irizpide tekniko, juridiko eta profesional soiletan oinarritzen da eta ez du inoren gustukoa izan beharrik. Cuatrecasasen txostena "a la carta" eginikoa da eta ordaindu duenak entzun nahi duena esaten du. Baina argi utzi nahi dut, nik txosten guztiak errespetatzen ditudala, baita Cuatrecasas abokatuena ere, esaten dituzten gauza askorekin ados ez egon arren.

N. Alkateak bere iritzia legearen 115. artikuluan oinarritzen du. Beraz, bere esanei erreparatuz, sendoa dirudi berak ematen duen argudioa.

X. O. Egi osoa esateko, 115. artikulua azken zatian oinarritzen da alkatea. Ez artikulua osoan. 115. artikulua lehen zatiak oso garbi dio baliabideak babes publikoko etxebizitzak eraikitze erabiliko direla lehentasunez. Hori ahaztu egiten du 2007ko aurrekontuak eta ez du euro bakar bat ere destinatzen babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzen. Lehentasuna dena, ahaztu egiten da, hirugarren urtez jarraian. Ez da legezkoa, sententzien arabera.

Hori gutxi balitz, espreski alboratzen da legearen 114. artikulua. Honek Usurbilgo Udala behartzen du bere sarrera aurrekontuen zati bat (I eta II kapituluaren % 10 gutxienez) udal ondaretarako izendatzea, beti ere ziurtatuz 4 urteko epean gutxienezko diru kopuruaosatzea. Alkatetzat memoriak hitzez hitz dio 2007 urtean ez dela erreserbarik egiten eta hurrengo urteren bateko aurre-



TEILAK KENTZEN HASI DIRA ARTZABALEN. 2007KO INBERTSIO HANDIENA IZANGO DA.

kontuan egingo dela. Nire ustez, oraingo korporazioak legea bete gabe utzi eta hurrengo urteren batean, beste korporazio batek legea beteko duela arinki esatea, legeari ihes egitea da.

N. Udal kudeaketaren onerako, alkatea eta teknikariaren arteko harremana bideratzeko saiakerarik egin al da?

X. O. Arrazoi osoa duzu. Udal kudeaketaren onerako eta herriaren onerako askoz egokiagoa litzateke alkatea eta udal teknikarion arteko elkarlana. Hori da behintzat teknikari gehienon iritzia.

IMANOL UBEDA _____

Kale nagusia, 10/
Telf. 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindegia - Gozolegia

LABE-GOXO

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

LATAILLADE **ITURGINTZA**

GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Ariztitxo 8, behea • 943 363 348 • 609 888 021

TXOKOALDE

ALOÑA LOIDI

Angulak



Gure auzoan, beste zenbait herritan bezalaxe, Gaspaldikoa eta aski ezaguna da angulak harrapatzeko zaletasuna eta tradizioa. Orain dela 20 edo 25 urtera arte Txokoalden Simonenean arrain-haztegi edo biberoa zegoen eta bertan, angulak egosi, prestatu eta saldu egiten omen zituzten.

Angulak ibaiaren bazterretik harrapatzeko, pazientziaz gain, ondorengo tresneria behar da; kinka edo kandeladun kristalezko farotxoa, urak gainezka ez egiteko alanbre sare estuz hornituriko zulodun ontzia eta baia edo salabardoa (esku sare makiladuna). Angula garaia urritik apirila bitartean luzatzen da, data konkreturik gabe, etorreraren arabera.

Angulen prezioak gora-behera handiak izaten ditu angula garaia hasten denetik bukatzen denera arte. Urrian, egosita 700 eurotan zegoen kiloa eta bizirik 300 eurotan. Azpimarratu beharra dago, prezio hauei eta tresneriaren hobekuntzari esker indartu dela tradizio zahar hau.

Bestalde, ibai ertzean angula harrapari zaleek zenbait iskanbila izaten dituzte "puestean" nor ariko eztabaidan. Lehen bertakoak aritzen ziren anguletan eta beren dinamika zeramaten. Orain aldiz, ingurukoak gehiago dira bertakoak baino eta "ibaia eta ibai ertza ez dira inorenak" dioen legea aplikatuz, beraien erara aritzen dira. Bakeak gehiago balio duela eta badira auzoan liskarren eraginez anguletara joateari utzi diotenak ere.

KALEBERRI

ENKO HARREGUY

Ezin da...



“Ezin da bat Ixiarren okindegira joan, ez bada

Donostia aldeko sarreratik sartu dela edo kaxkoari begiratu eman gabe. Horrela, ikusiko du herri honek Kale Nagusia norabide bati makurtua zaiola. Horrela, ikusiko du, karrikaren amaieran ere, eskuinetara, etxe berriak jaiotzen ari zaiatzela politikaren uztari. Eta konturatuko da, gauzak asko aldatu ezean, ez dela teiltatu baten jabe izango. Aukerak ez dira zabalak; etxebizitzaren prezioaren adinako soldata edo babes ofizialekoetan zoriona.

Zenbat dira herrian kabi baten beharrean? Mordoxka bat. Eta, era berean, ezinean? Mordoxka. Herrian landatzen diren etxeak nork bazkatzen ditu? Herritarren gehiengoak ezin du (aipatu aukera murriztzak direla-eta)! Ezin duenak ezin du? Ez dago herritik kanpora atera baino aukera hobeagorik? Ezin dut sinetsi: interesak! Bide batez, halaber, interes-iruzurti hori zeruan dago. Ez da bidezkoa”.

Nire iritziz badu arrazoia, mordoxka (mordoxka direnez). Ahotsak esaten duen bezala, landaketak bide baratzetan eta bideetan, eta lurra iraulita badago ere, “herria “garatzen” eta “garaitzen” ari da, eta ez –gutxienez– herritarrentzat.” Eta nire irudipena (ezin dut beste izenik erabili, irudipena) goitik begiratu eta maketa aurrefabrikatu bat dirudiela. Dirudiela.

KALEZAR

MADDI GALBETE

Inauteriak



Aurtengoan ere iritsi dira Inauteriak Agure artera. Kalera irten eta milaka moztaroz jantziriko gorputzak ikusi ditugu pasatako egunetan Usurbilgo nahiz beste herri edo hirietako kaleetan. Eguraldia, ordea, ez da batere ondo portatu. Izugarritzko euri zaparrada bota du egun guztietan eta ezin izan dugu guztiz gozatu, baina horrek ez du festa giroa zapuztu, ez behintzat joan den ostiralean, Tolosan, Mendeku Itxuak eman zuen kontzertuan.

Euria goitik behera egiteaz gain, hantxe bildu ginen pertsona dexente, kontzertu on bat entzuteko gogotsu, eta zinez mundiala izan zen. Larunbatean, aldiz, Usurbilen, batukada entzuteko aukera paregabea izan genuen BTK taldearekin, baina honetan ere eguraldiak ez zuen batere lagundu.

Hala ere, festa egun hauek gorputza deskantsatu eta festa giroan murgiltzeko balio izan dute, eta ez da gutxi!



ATXEGALDE

MARIA JESUS URBIETA

Neguko ospakizunetan

Hilaren 2an Kandelario, bestean Santa Ageda, dio kanta zahar batek eta aurreten ere ospatzeko aparteko aukera izan dugu. Kandelak eta opilak bedeinkatu eta dastatu, Santa Ageda egunean, edo bezperan, pozik ibili ginen koruko partaideak (Irrii taldekoak) eta baita herriko beste talde herrikoiak ere, umore onarekin, kantari kalean zehar, San balentin eguna ere izan dugu. Bikotekidearen egun berezia, afari, gozo edo detailetxoren batekin, zorionak emateko egun polita eta, nola ez, Inauteriak pil-pilean. Gaztetxoak ondo pasa zuten, ikastolako ikasleak, asko landutako zaku dotoreekin eta mota desberdinetako jantziekin apainduta, eta Inauteri doinuekin salto eta dantza, hor ibili ziren kiroldegian, plazan eta kalean zehar. Tolosan ere bazen zer ikusia, sekulako jendetzak bildu ziren bertan. Txispa berezia izaten da bertan eta hala izan da aurreten ere, jendea alai eta saltoka txaranga eta konpartsen atzetik. Bazkalostean ateri egon ondoren, 18:00etan ari zuen euri zaparrada. Lehengo urtean ere gertatu zen baina jendea tinko, aterkien azpian. Bueltakoan, Andoain aldera heltzean bidea lehor, eguraldiaren txantxa ote? Tolosak baduela Inauterietan aparteko sarma eta jendea pozik joaten da...



SANTUENEA

IÑAKI LARRAÑAGA

Obrak bai, baina nolakoak?



Txotx garaia puri-purian dago. Batzuk esaten didate: hi beti sagardoari buruz idazten! Egia da, baina, sagardoaren “fans” bat naiz, noski, bere tamainan.

Bestalde, aurrera doaz yoga edota dantza ikastaroak eta aurrerago ere makillaje eta sukaldaritzarenak izango omen dira. Azken honek arrakasta izan zuen eta errepikatzeko gogoz daude guztiak.

Tira, badakizue, obrak gelditu gabe ari direla. Etxeak eta etxeak, hori da gaur egungo joera. Ez dago oztoporik etxeak egiteko garaian. Non geldituko da gure herriak zuen xarma hura? Zer behar ditu gure herriak? Hori al da benetan herriak nahi duena? Bai badakit, horien gainetik beste interes batzuk daudela, zoritxarrez! Gure auzoak aldez ez ditu azken urteetan aldaketak edo obrak ikusi, eta beharko lituzke. Adokinak leku askotan ez daude, altxata daude, traba egiten dute... Gure eskubaloiz plazarekin zerbait ere egin beharko lukete. Hala ere batzuetan gauzak dauden bezala uztea hobe izaten da, ze agintari hauekin...

AGINAGA

AITOR HELETA

Mapil eta Itzulegi errekek



1997ko ekainaren 1ean, goizeko 8:00etan izugarria bota zuen, ordubetea 100 litro inguru metro karratuko. Horren ondorioak gure inguruan apokaliptikoak izan ziren, hasi Txikiertitik Mapileraino, errekatxo bat zegoen tokian ibaia sortu zen (Troia, Txokoalde, Mapil, e.a.), azken honen inguruan dauden Mapil erreka eta Itzulegi erreka hitz egin nahi dizuet, biak elkartzen diren puntuan erreka bidea desbideratu dute, industri pabilioi handi bat egiteko, ez hori bakarrik puntu horren gainean izugarrizko betelana egin dute, hilabetetan kamioiak gora, penditza handia zegoen tokian orain handiagoa eta batere egonkortasunik ez duen ingurua uzten, horren ondorioz gutxienez bi lur-jauzi egon dira, ondoren harri handiz egindako pareta batekin heltzen saiatu dira.

Ni ez naiz teknikaria, baina nere sen onak esaten dit errekek bere bidea hartuko duela, beharbada urte asko pasako dira. Ez dadila gertatu baina zerbait gertatuz gero, zeinena izango da ardura? Hauek dena libre al dute?

URDAIAGA

ALAZNE BEGIRISTAIN

Eguraldiaren gorabeherak



Santa Ageda orain gutxi izan dugu. Makilak hartu eta koplak kantatuz, lurra esnatzea omen da ohitura honen helburua. Izan ere, Inauteriak ere igaro zaizkigu eta udaberriaren atarian murgildurik izango gara laster.

Eguraldiaren aldaketak direla eta, goizero esnatzean misterio bat da zer nolako eguraldia egingo ote duen jakitea. Egun batean euria egin lezake, hurrengoan hego haize epela... Eta honela gabilta denok, eguraldia bezala erdi txoratuta: katarroarekin gora eta behera, jantzi beharreko arroparekin ere asmatu ezinik...

Ikusiko dugu zer gertatzen den udaberrian. Pentsatzen hasia nago loreek ere ez ote duten asmatuko noiz atera behar duten!

Aurten negurik ez omen du ari egiten eta agian udaberri garaian iritsiko zaigu negua. Ba omen dira, elur gainean alpargatekin dantza egindako San Juanak ere!

ZUBIETA

ANE ARANBURU

SOS usurbildarrak



Ane naiz eta 12 urte ditut. Zubietan bizi naiz familia eta lagunekin, oso gustura. Baina azken garai honetan inguruan ditudan lagun guztiak urduri eta aztoratuta dabilta erraustegiaren kontuagatik. Oraindik ez dute jarri, baina niri eta ingurukoiei sortu dizkigu katramila batzuk: manifestazioak, pankartak egin... Eta gurasoak bileretan, prentsaurrekoetara joaten, eta abar.

Kontu guzti hauetatik bi ideia atera ditut: denok sortzen dugu zaborra eta arazo serioa dugu konpondu beharrekoa, eta erraustegi batek ingurua asko kutsatzen du, eta ez bakarrik gertu-gertu dagoena.

Zubietan bizi gara eta hemen jarraitu nahi dugu bizitzeko, gure etorkizuna hemen dago eta. Nahiz eta auzo txikia izan familiak bete dago eta ez dugu nahi kutsatzerik. Ezta arazo hau beste auzo, herri edo hiri batek edukitzea ere. Nire anaiek esaten duten bezala: “Erraustegirik ez, ez hemen ez inon”.

Martxoaren 3an manifestazio bat dago eta laguntza eskatzen dizuet usurbildarrei bertara joateko, eta protestatzeko. Arazo hau ez baita gurea bakarrik, denena da. Hemen jarraitu nahi dut bizitzeko, Zubietan nire familia eta lagunekin.

Mariaje Imaz, Udarregi ikastolako zuzendaria

“Gure eskaintza interesgarria eta aurrerakoa da”

Datorren astelehenean hasiko da Udarregi ikastolan matrikulatzeko epea. 2 urtetik 16 urtera bitarteko irakas-kuntza arautua eskaintzen da bertan. Matrikulazio kanpainaz, ikastolaren orainaz eta geroaz eta Hitz Aho guraso elkartearen inguruan solasaldi interesgarria izan dugu Mariaje Imazekin, Udarregi ikastolako zuzendariarekin.

NOAUA! Hirugarren lerro bat zabaldu da Udarregin, ezta?

Mariaje Imaz. Ikasturte hasieran, hirugarren lerro bat ireki zen hiru urtekoen mailan. Datorren ikasturtean ere, segur aski, hiru urtekoen taldea ere hiru gelatan izateko adina ikasle izan daitekeela aurreikusten da. Jaiotza asko eman dira, familia asko etorri dira Usurbila bizitzera eta hazkunde hori sumatzen ari gara urtetik urtera. Azken ikasturteotan igoera sumatzen ari gara. Oraindik bada tokia matrikulatzen diren horientzat, baina oso serio planteatu behar dugu, 2 eraikinetan ditugun espazio beharren kudeaketa. Laster batean gelak beharko ditugu, eta horrekin batera, ikasle kopuruaren arabera beste erabateko gelak antolatzeke espazioak eskatzen zaizkigunez, hauetarako espazio jakin batzuk behar dira: laborategiak, liburutegiak, balio-anitzeko gelak...

Herriari zerbitzu bat eskaintzen ari gara eta azpiegitura egokiak behar ditugu ikasle eta familia guztiei behar bezalako erantzuna eman ahal izateko.

N. Udaletxearekin harremanetan al zaudete?

M. I. Joan den ikasturte amaieran, bilera bat izan genuen eta hor asmo batzuk azaldu ziren. Agerialdeko eraikinean badira EPAk eta Lanbide Hastapenekoek erabiltzen dituzten gelak. Gela horiek ikastolak baliatzeko akordiora iritsi ginen (udalak EPA,



AURRERA BEGIRA, ESPAZIO HANDIAGOAREN BEHARREAN IZANGO DIRELA ADIERAZI DIGU IKASTOLAKO ZUZENDARIAK.

Lanbide Hastapenekoak beste eraikin batzuetan kokatzeko asmoa azaldu zuten). Baina epeetan atzerapenak eman dira eta ikasturte honetan Agerialdeko gela horietan jarraitzen dute zerbitzu horiek. Horretaz hitz egiteko bilera bat dugu egiteko oraindik. Izan ere, gela horiek eskuratzea gure lehentasunetako bat da. Gela horiek hustu eta erabili ahal izateko aukera izatea guztiz beharrezkoa bihurtu da ikastolarentzat, espazioetara ditugun berehalako beharrei irtenbide iragankor bat emateko, bederen.

Agerialdeko eraikina, dena den, aspaldikoa da eta hor ere beharrezkoak dira etengabeko moldaketak. Hornikuntza mailan egokitzapenak egin beharko lirateke.

Dena den, iruditzen zaigu herri mailako planteamendu bat egin beharko litzatekeela. Ikastola bakarra da herrian dagoena, Haur Eskola ere hor dago, eta interesgarria litzateke herri osoari begira eta adin tarte guztiei begira eskaintza bat egin ahal izatea, herrian sortzen diren hezkuntza behar horiei guztiei irtenbide egoki

bat eman ahal izatea eta guztiok ondo koordinatuz nahiz planteamendu zabal bat eginez.

UDARREGIREN ABANTAILA

“Haurrak txikitatik herrian txertatzen hasten dira”

N. Haurra matrikulatzear duten gurasoei zer esango zenieke, alegia, zer topatuko dute Udarregin?

M. I. Alde batetik, herrian bertan hezkuntza mailako erantzun egoki bat eskura edukitzea nabarmentzeko gauza da. Haurrak txikitatik herrian txertatzen hasten dira, bere herrian integratzen. Usurbil oraindik ez da herri handienetakoa eta giro familiarrean garatu daiteke haurren heziketa. Bestetik, egiten den eskaintza ere ondo dago, dauden berrikuntzei aurre egiteko saiakera egiten da egunerokotan. Egunean egoteko gogo dugu.

Irakasleen aldetik, badago formazio-rako eta birziklatzerako joera, ikastolak berak sustatzen duena Urteroko Kudeaketa Planean. Gero eta irakasle berri gehiago sartzen ari dira, eta horrek lagundu egiten du gure oinarritzko eta betiko planteamendua berritzen. Ikastolen Elkartetik egiten diren eskaintzak ere, oso interesgarriak eta aurrerakoiak dira. Bakarrik hezkuntza planteamendutik ikusita, oso aukera baliagarria da Udarregikoa.

N. Bukatzeko, Hitz Aho guraso elkartearen sortu berri da Udarregi ikastolan. Elkargune berriak sortzea garrantzitsua izango da, ezta?

M. I. Guraso horiek gogo handiarekin ari dira lanean. Guretzat oso positiboa da hori. Gurasoentzat ere, beraien artean dituzten kezak konpartitzeko oso gune aproposa da eta ekimen handiak martxan jartzeko asmoak dituzte. Ikastolako bizitzan partehartzeko modu ezberdinak egon daitezke eta haxe bera da bat, oso lagungarria gainera, gurasoen esparru hori aberasteko. Nahi duenarentzat, beraz, bada partehartzeko aukera, eta nik lerro hauetatik animatu nahi nituzke horretara.

IMANOL UBEDA

Matrikulazio epea: otsailak 26/ martxoak 9
Telefono zenbakia: 943 361 216.



BESTEAK BESTE, INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIAK LANTZEN DIRA
UDARREGI IKASTOLAN: INFORMATIKA, INTERNET, IKUS-ENTZUNEZKOAK...

Astelehenean hasiko da ikastolako matrikulazio kanpaina

Bi urtetik 16 urtera bitarteko Birakaskuntza arautua eskaintzen da Udarregi ikastolan. Euskaraz ikasi eta bizitzeaz gain, Euskal Herriko kultura sustatzeko ahalegina egiten da. Baina balore eta jarriren lanketa ere badira Udarregiko heziketaren ardatz garrantzitsuak ere. Eskolaz kanpoko jarduerak sustatzen

dira: kirolak, bertsogintza, dantza... Orientazio departamendu bat ere bada, ikasle nahiz gurasoentzat. Laguntza-gela bada, heziketa behar bereziak dituzten ikasleentzat. Hala nola, garraioa auzo guztietara ziurtatzen du Udarregik. Jangela zerbitzua ere eskaintzen du, dieta orekatu eta osatuekin.

ALIPROX

Kale Nagusia 10
☎ 943 361 182
USURBIL

Industri eta iragarki
SERIGRAFIA
TANPOGRAFIA
PSU
943 371 954
UGALDEA POL.36-2-USBIL

MIKEL
IZAGIRRE
ELEKTRIZITATEA

943 365 095
609 068 111

GOIZ ARGI ETXEA, 37. KALEZAR

ERRAZKIN
Igeltseritza S.L.

Tel.: 649 435 470
Faxa: 943 372 679

K / Nagusia 47, Behea A
20170 USBIL

MAHUKA
ETXEBESTE KALEA, 3- 943 361 108

Llemen aurkituko duzu
glizon eta emakumezkoen
MODAKO ARROPA

J.ORBEGOZO
ITURGINTZA • GASA • BEROKUNTZA

BIZKARRA 1, 1.EB. 943372937 • 659602789

Andoaingo Piano Jaialdian arituko dira Zumarte Musika Eskolako 12 ikasle

Asteburu honetan ospatuko da Andoaingo Piano Jaialdia. Bertan, Euskal Herriko musika eskoletako 700 ikasle baino gehiago bilduko dira. Andoaingo Bastero Kulturgunean egingo dira piano saio guztiak eta Zumarte Musika Eskolako 12 ikaslek ere hartuko dute parte.

Otsailaren 24an eta 25ean, goizez eta arratsalde, piano doinuak nagusi izango dira Andoainean. Euskal Herriko Musika Eskoletako ikasleen artean, Usurbilgo Musika Eskolako ikasle hauek ere hantxe izango dira:

Mikel Atxega, Irene Irazusta, Medea Cuellar, Miren Izeta, Leire Zubigarai, Ander Hernandez, Vanessa Alzas, Ane de Miguel, Maialen Iñarra, Ane Aburruza, Thalia Cuellar eta Ainhoa Azpiroz.

A MAILA (10 urte arte)

Otsailak 24 larunbata

- Basteroko ekitaldi aretoan, goizeko 9:30ean, Mikel Atxega arituko da pianoa jotzen.

- Basteroko auditorioan, 12:15ean, Usurbilgo bi bikote hauek arituko dira: Irene Irazusta eta Medea Cuellar, Miren Izeta eta Leire Zubigarai.

B MAILA (13 urte arte)

Otsailak 24 larunbata

- Basteroko ekitaldi aretoan, 16:45ean, Ander Hernandez.

- Basteroko ekitaldi aretoan, 12:15ean, Vanessa Alzas eta Ane de Miguel, Maialen Iñarra eta Ane Aburruza bikoteak.

C MAILA (16 urte arte)

Otsailak 25 igandea


- Basteroko ekitaldi aretoan, 12:00etan, Thalia Cuellar eta Ainhoa Azpiroz arituko dira.

IMANOL UBEDA



ANDOAINGO PIANO JAIALDIAN PARTE HARTUKO DUTEN IKASLEAK: MIKEL ATXEGA, IRENE IRAZUSTA, MEDEA CUELLAR, MIREN IZETA, LEIRE ZUBIGARAI, ANDER HERNANDEZ, VANESSA ALZAS, ANE DE MIGUEL, MAIALEN IÑARRA, ANE ABURRUZA, THALIA CUELLAR ETA AINHOA AZPIROZ.

I n t n n - z r m u n l k



Telf: 943 36 61 21

Alperroburu, 1

K n k l

- I. n t z r
G z n z k n r r p
I l u r n t z k
- F i x r k h r
l u z u n k

Zubiaurrenea, 3

3 3 1 7 7



Marijo Sardon, abenturazalea, judo taldeko kidea eta harrijasotzailea

Euskadiko 6 orduak igarota, Sagarrondotik gertu, Oiardon judoan. Marijo Sardon kirolari urnietarra Patagoniatik itzuli berria da. ETB 2ko "El Conquistador" saioan parte hartu du.

Bigarrenenez, Sagarrondotik jaialdian ikusiko zaitugu?

Marijo Sardon. Urnietako Udalekoekin hitz egiten hasiak gara eta aurrera aterako dela suposatzen dut. Marka bat egiteko asmoa dago. Urnietakoa izanda, pozgarria izango litzateke. Iaz, lehen aldiz parte hartu nuen, beldur pixka batekin; jaioterrian aritu behar bainuen eta harria altxatzen neska bakarra nintzen. Baina jendeak oso ondo onartu nau. Geroztik eta lasaiago aritzen naiz.

Marka hausteen bidetik jarraitu nahi al zenuke?

M. S. Gauzak garbiago ditut. Hasi berria naiz. 30 urte izan arren, mundu honetan jarraitzeko asmoa dut. Odolean baitaramat. Gustura nabil eta gauzak ondo ateratzen ari dira.

Judoan ez zara hasi berria. Aspalditik zabilta?

M. S. Sei urterekin, Urnietako Egape ikastolan hasi nintzen. Gerora, Hernanin eta Andoainen egon ostean Usurbilgo taldean hasi nintzen. Zazpi bat urte daromat bertan. Urtarrilean Espainiako Txapelketa izan nuen eta hirugarren postua eskuratu nuen. Emaitzarekin oso pozik nago, Argentinatik etorri berria eta ia entrenatu gabe bainintzen.

Lehenagotik judoan ere marka dezente hautsi dituzu?

M. S. Bederatzi domina

Espainia mailan. Espainiako Txapelketan zaharrena naiz. Nire urte onenak igaro dira. Orain, lehian lasaiago aritzen naiz. Gustura, presio gutxiagorekin joaten naizelako.

Usurbilgo Judo taldea herritik kanpo ezaguna da. Inguruko herrietako asko zoazte bertara?

M. S. Bertako jendea baino kanpotik goazenak gehiago garela uste dut. Batez ere, senior mailakoak. Esteban oso entrenatzaile ona da; Euskadi mailan onenetakoa. Eta gure artean oso hartu eman ona dago, oso giro ona. Horrek egiten du denak bertan jarraitzea. Aurten Espainiako Txapelketan hiru domina eskuratu ditu taldeak.

ETB-2ko "El Conquistador del fin del mundo" saioan lehian ari zara. Nolatan?

M. S. Arratsalde batean telebistan iragarri zuten eta deitu egin nuen. Ni edozer gauzetara apuntatzen naiz. Ez nuen uste hartuko nindutenik. Baina hamabost egunen tartean, Patagonian ginen.

Juanito Oiartzabalen taldean, zer moduzko giroa?

M. S. Juanito gizon zoragarria da. Genioa du, ezin du isilik egon, asko mugitzen da. Baina oso jatorra da. Bestalde, bizi-baldintzak oso gogorrak ziren. Aldiz, gure artean oso giro ona izan dugu. Bizitzako esperientzia izan da.

Oraindik ikusteke asko al dago?

M. S. Saltsa asko. Ez galdu saioa.

ARITZ GORRITI



ERAKUSTALDI BIKAINA ESKAINI ZUEN
SARDONEK IAZKO SAGARRONDOTIK JAIALDIAN.

Markak hausten

Marka berria jarri zuen Marijo Sardonek Anoetako Belodromoan ospatu zen Euskadiko Sei Orduetan. 100 kilotako harritzarra hamar aldiz altxa zuen bost minutuko tartean. Miren Urkiola bizkaitarraren aurka neurtu zituen indarrak. Bi emakume harrijasotzaile lehiatzen ziren lehen aldia izan zen. Sardonek Urkiolak berak jarritako marka altxaldi batez hobetu zuen. Bizkaitarrak 9 jasoaldi eginak baititu.

Euskadiko Sei Orduetan, gainera, Sardonek adina altxaldi egin zituen. Horietako bi, ordea, epaileak baliogabetu zizkion. Beraz, bi kirolariak parekatuta dabilta.

NOAUA!ko bazkideen ohiko batzarra, martxoaren 17an

NOAUA!ko bazkideen batzarra urtean behin bil-tzen da eta elkartearen norabidea eta egitasmoak erabakitzen dira bertan. Aurten, martxoaren 17an egingo da batzarra, NOAUA!ren egoitzan bertan, goizeko 10:30etik aurrera.

2006ko memoria eta balantze ekonomikoa aztertu eta 2007rako egitasmoak eta aurrekontuak azalduko dira martxoaren 17ko batzarrean. Iaz bezala, aurten ere NOAUA!ren egoitzan bertan egingo da bazkideen batzar nagusia.

Zuzendaritza batzordea osatuko



duen lan taldea ere zehaztuko da martxoaren 17ko batzarrean. Gogoan izan, bazkideek urteko batzarrean onartutako egitasmoa gauzatu eta garatzen duela zuzendaritza batzordeak. Elkartearen helburuak zaintzeaz gain, elkarte lantalde eta egitasmoe-tarako baliabideak antolatzeaz ere arduratzen da.

Hiru mozio onartu ziren otsailaren 2ko udalbatza plenoan

Igaro den otsailaren 2ko Lezohiko Udalbatza Plenoan Iñaki de Juanaren egoerari buruzko mozioa onartu zen. Usurbilgo Etxerat-ek aurkeztuta, preso donostiarraren egoera larria salatzen zen. Gehiengoz onartutako testuan, De Juanarentzat berehalako eta baldintzarik gabeko askatasuna exijitzen zaio Espainiako Gobernuari. Saio berean, EAJko udal taldeak aurkeztutako beste mozio bat ere onartu zen. Politikaren judizializazioa eta justiziaren politizazioa salatzeaz gain, lehendakari Juan Jose Ibarretxeren aurka zabalik dagoen zigor kausa ixtea exijitzen zuena. PP udal taldeak aurkeztutako beste mozio bati ere bide eman zitzaion. Igaro den abenduaren 30ean Barajasen izandako atentatua gaitzetsi eta bertan kalte-tutakoei elkartasuna adierazten ziena.

NOAUA! Kultur Elkarteak bazkideen Batzar Nagusia

EGUNA:

Martxoak 17, larunbata
Lehen deialdia, 10:15ean
Bigarren deialdia, 10:30ean

TOKIA

NOAUA! Kultur Elkartearen egoitzan
(Bordaberri 3, behe)

GAI-ZERREDA:

1. 2006ko memoria eta 2006ko balantze ekonomikoa.
2. 2007ko egitasmoak eta 2007rako aurrekontuak.
3. Zuzendaritza Batzordearen osaketa eta onarpena.
4. Galdera/erantzunak.

Martxoan KzGunean

KzGuneak, martxoan, arratsaldean irekiko ditu ateak. Astelehenetik ostiralera, 16:00etatik 20:00etara. KzGunea Kale Nagusia 37 helbidean aurkituko duzue.

INTERNET IKASTAROA

Ile-apainketako ikasleei zuzendua
Martxoak 5/ martxoak 9
Astelehenetik ostiralera, 16:00-18:00.

Internet ikastaroa (gaztelaraz)

Martxoak 19 / martxoak 30
Astelehenetik ostiralera, 18:00- 20:00.

IT TXARTELA

Hurrengo azterketak

Martxoak 6 asteartea, 18:00-20:00.
Martxoak 14 asteazkena, 18:00-20:00.
Martxoak 23 ostirala, 16:00-18:00.
Martxoak 29 osteguna, 16:00-18:00.

MINTEGIAK

Irudi digitalen tratamendua
Martxoak 12 / martxoak 15
Ordutegia: 18:00-20:00

Flashget (gaztelaraz)

Martxoak 26 astelehena
Ordutegia: 16:00-18:00

Bertso desafioa Urdiñarben

Larunbat honetan, bertso desafio polita izango da Urdiñarbeko (Zuberoa) Bil Xoküa elkartearen. Kerman Errekondo eta Tola Agirresarobe izango dira Usurbilgo ordezkariak. "Aurrez aurre" izango dituzte Urdiñarbeko Mixel Etxekopar eta Beñat Etxebeste. Ander Arantzazistroke arituko da trikitilari lanetan eta inguruan izango du Mikel Elexperen "laguntza". Aldapa arituko da, beste behin ere, sukaldari lanetan.

Badator Korrika

Martxoaren 24ko iluntzean ailegatuko da gure artera

Korrika 15 euskararen aldeko ekimena hasteko geroz eta gutxiago geratzen da. Karrantzan hasi eta Iruñean amaituko da. Usurbildik martxoaren 24ko afalorduan igaroko da.

Egunak gerturatzen joan ahala, Korrika 15 ekimenari buruzko xehetasun gehiago kaleratzen doaz. Martxoaren 22tik apirilaren 1era, Karrantzan hasi eta Iruñean amaituko da, "Heldu" lemapean. Martxoaren 24an igaroko da Usurbildik. Behin betiko lasterketa maparen arabera, euskararen aldeko korrikalari uholdea Zubietara gaueko 21:00ak aldera ailegatzea aurreikusia dago. Ordubeteko tartean, Zubietara, Santuenea, Kaleberri, Atxegalde eta Aginagatik igaroko da.

Karidadeko Benta martxoaren 9an Sutegin

Korrika Kulturala otsaila hasieratik abian da. Hainbat herritan antolatu dira kultur ekitaldiak martxoaren 23ra arte; tartean, Usurbilen. Martxoaren 9an, Karidadeko Benta kontzertua eskainiko du Sutegin iluntzeko 21:00etatik aurrera. Zumaiarrek "San Quirico" izeneko azken lana aurkeztuko dute. Hamaika abestietan, bertsolariaren ikuspegitik jasotako bertso alai, ironiko eta pertsonalak tartekatzen dira.



DUELA BI URTE, EGUNEKO ZENTROAK ETA KALEZARREKO HAUR ESKOLAK ELKARREKIN OSPATU ZUTEN KORRIKA FESTA.

Korrika laguntzailea, zabalik

Korrika laguntzaile izateko aukera dago oraindik. 12 euro kostatzen da eta txartela eta laguntzaile pin-a etxean jaso daitezke. Horrez gain, ekimenari laguntza eskaintzearen truke, Euskal Herriko 300 saltoki baino gehiagotan beherapenak izateko aukera dago. Horretarako, Etumeta euskaltegira edota Korrika laguntzaile bereizgarria ikusten den lekuetara jo besterik ez dago. Bertan, laguntzaile izateko beharrezko dokumentazioa jaso daiteke.

ARITZ GORRITI

Korrika 15 Martxoak 24 larunbata

LEKUA	ORDUTEGIA
Araeta	20:52:17
Iturritxo etxea	20:58:47
Negutegia	21:05:17
Santuenea atarian	21:11:47
Usurbil seinalea	21:18:17
Babes ofizialeko etxeak	21:24:47
N-634 Atxegalde azpian	21:31:17
N-634 Aginaga kartela	21:34:32
N-634 Txokoalde gasolindegia	21:37:47
N-634 Aginaga sarrera	21:44:17
Mapil	21:57:17
Intxaurreta	22:00:32

JOSETXO IKATZETA
Iturgintza
TEL: 943 36 20 26
687 95 12 25

LAUKOTE
OKINDEGIA
KAFETEGIA
Puntapax kalea, 16 behea
(Artzabal): 943 36 09 80

Ileapaindegia eta Solarium-a
Ioli Lizarralde
Estetika Zentroa Merche Casaresen eskutik.
Zubiaurrenea, 5B @ 943 361 971

Hitz-gezidunak !!

			Losintxa	▼	Epaitegi	▼	Musika nota	▼	Ipar EH-n, jautiki	▼	Ni filosofikoa
			Malgu-tasun		Ontzi gidoina		Ahotsaren garaiera		Hego Ko-reako hirib.		
			➤		▼		▼		▼		▼
			Gipuzkoa-ko herria	➤				Gaixo	➤		
		Ibarrek				500					
Zigorrek	▼	Minduta	➤	▼			▼				
Katu basa		* IRUDIAN									
➤		▼					51	➤		Katu ar	
							Ur ugari du				
Txori mota	➤				Bokala	➤	Uranioa	➤	K birritan	➤	
Guraso arra					Argi izpi		(Infin.) Osatu		Gizon izena		
➤				Bidalia	➤	▼	▼		▼		
				Bizkaieraz, iratzea							
Leninen jarraitzaile	➤			▼					Zilarra	➤	
Mezaren erdia									Kontso-nantea		
➤						Landare erregarria	➤		▼		
						Bokala					
Katilu txikia	➤					▼	(Infin.) Ulertu	➤			

Argazkian, Usurbilgo Kultur Etxea.

Soluzioa: 16. orrialdean.

ASKO DUGU ESATEKO

NOAUA! astekaria, tren eta autobusen ordutegia, noaua.com, kultur ekitaldien sustapena, euskararen normalizazioa, urteko egutegia, beka deialdiak, NOAUA! Txiki, Fototeka, Plis, Plas, Txalo ta Jolas, “Usurbilgo Baserriak eta Baserritarrak”... Gure bazkideak harro egoteko moduan dira. Baina gehiago eta hobeto lan egin daiteke.

Orain, bazkide egiten bazara, Usurbilgo baserrien liburua jasoko duzu opari gisa.

Bazkide egin zaitez!



36 euro urte osorako

Izena: _____

1.Abizena: _____

2.Abizena: _____

Helbidea: _____

Herria: _____

Telefona: _____

E-posta: _____

[illegible]

Orrialdea bete eta NOAUA!ra ekarri edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Asier Arrutik Aspeko finala jokatu du

Lehen mailako eskuz binakako pilota txapelketa finalerdietan sartu denean, 2. mailako txapelketa ere aurrerantz doa. Azken urteetan bezala, Asegarce eta Aspe enpresek bakoitzak bere adarra antolatu dute eta azken enpresa horren adarrean jokatzen ari da Asier Arruti usurbildarra. Eta nola gainera! Izan ere, dagoeneko Aspeko finala jokatzeke txartela lortu du Larralde lesakarrarekin batera.

2007. urtea ondo hasi du Asier Arrutik. Urtarrilean eta otsailean jokatu dituen 10 partidetatik 8 irabazi ditu eta Bigarren mailako eskuz binakako txapelketari dagozkion neurketa guztiak irabazita, Aspe enpresako adarreko finala jokatu du datozen asteetan Larralde lesakarrarekin batera.

Ligaxka amaitzeko jardunaldi bat falta bada ere, txapelketa honetan jokatu dituzten hiru partidak irabazita finala jokatzeke txartela lortu du Larrarte-Arruti bikoteak. Pasa den ostiralean Uriarte eta Elkororen izan zituzten aurrez aurre Tolosako Beotibar pilotalekuan eta 22 eta 17 irabazi zuten. Aurreko jardunaldietan Berasaluze IX-Urberuaga (22-19) eta Apezetxea-Zubieta (22-16) gainditu zituzten.

Ligaxkako azken jardunaldia Baleztena eta Auxkin bikotearen aurka jokatzekeoa da, baina agian azken jardunaldi hori ez



AZKEN 10 PARTIDETATIK 8 IRABAZI DITU ASIER ARRUTIK.

dela jokatu esan digu Asier Arrutik. “Aspe adarreko finala nortzuk jokatu dugun erabakita dago eta agian azken partida hori ez dugula jokatu esan digute” zioen Asierrek astelehenean, hilaren 19an, Tolosan jaialdiko lehenengo partidari Capellaneekin batera Berasaluze IX eta Elkororen aurka galdu ondoren. Izan ere, Larralde eta Arruti bikoteak ez ezik, Uriarte eta Galarza VI pilotariak ere azken neurketa hau jokatzeke txartela lortu dute dagoeneko.

Aspe adarreko finala parekatua ikusten du Asierrek. “Bi bikoteek dugu finala irabazteko aukera. Pasa den ostiralean jokatu genuen Uriarte eta Galarza VI ordezkatu zuen Elkororen aurka eta 22 eta 17

irabazi genuen. Gure jokoa eginez gero irabazi dezakegula uste dut”. Arrutik joko aldetik ondo ikusten du burua momentu honetan. “Urtarrilean txorkatila bihurritu nuen, baina erreuperatuta nago eta eskuak ere ondo ditut. Dagoeneko profesional mailako erritmoa ohitzen ari naiz”.

Aspe adarreko finala irabazten duen bikoteak 2007 urteko 2. mailako Eskuz Binakako txapelketako final nagusia jokatzeke aukera izango dute Asegarce enpresako bikote onenaren aurka. Azken partida hau martxoko azkeneko asteburuan jokatu da ziurrenik.

JOSU ARANBERRI

Jubenilak eta neskak Harane futbol zelaian

Usurbil Futbol Taldeko 1. jubenil eta Emakumezkoen taldeek Harane futbol zelaian jokatu dute asteburu honetan. Xabier Iraolak zuzendutako taldeak Seguraren aurka jokatu du Kopa txapelketari dagozkion neurketa. Usurbildarrek garaipena lortzeko aukera ona dute oraingo honetan, sailkapenean azken postuan dagoen taldea izango baitute aurrez aurre. Emakumezkoen taldeak, berriz, Kopa txapelketako 2. jardunaldiari dagozkion norgehiagoka izango du Haranen Euskaldunaren aurka.

Bi eskubaloitako partida Oiardo kiroldegian

Asteburu honetan bi eskubaloitako partida jokatu dira Oiardo kiroldegian. Gipuzkoako txapelketa jokatzen ari den jubenil mailako taldeak eta 1. Territorial mailako taldeak etxeko partidak izango baitituzte.

1. Territorial mailako taldeak jardunaldi bikoitza izango du asteburu honetan. Duela jardunaldi batzuk Andoingo Leizaran taldearen aurka neurketa bertan behera utzi behar izan zuten eta atzeratutako partida hori jokatu dute Oiardo kiroldegian. Horrez gain, Arrasate Eskubaloien aurka ere jokatu du asteburu honetan Antonio Castro eta Jose Lorenzo “Manzano”k zuzenduta-

ko taldeak, baina etxetik kanpo. Bi partida hauek irabaziz gero bigarren postua eskuratuko du herriko taldeak.

Jubenil mailako taldeak, berriz, Goierri OET taldea izango du aurrez aurre Oiardon. Herriko jokalariek gazteak sailkapeneko 2. postuan kokatuta daude momentu honetan. Ereintza Aguaplast taldeak baino 2 puntu gutxiago dituzte eta jardunaldi honetan garaipena lortzea garrantzitsua izango da lehen postua eskuratzeko aukerak mantendu ahal izateko.

Usurbil Kirol Elkarteko beste 2 taldeek etxetik kanpo jokatu dute. Kadete mutilek Leizaranen aurka eta neskek Elgoibarren aurka.

ETXEBIZITZA

- Hiru gela dituen etxe konpartitu batean bi gela alokatzen dira. 635208551.
- Usurbilen pisu bat alokairuan hartuko nuke. Tf: 630 032 779.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Ssangyong Musso todoterreno bat saltzen da. BC matrikuladuna eta beti garajejan egondakoa. 943364310.
- Moto bat saltzeko, Richoo RR beltza, 49 cm3. 649 302 733 (David). Ondo zaindua, "extra" asko ditu.
- Garaje itxi bat alokatuko nuke Usurbilen. 664774024.
- 80.000m2ko lursaila salgai. Ura eta bertarainoko bidearekin. 664774024.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Emakume edo neska euskaldun bat behar dugu ume bat zaintzeko. 678582665
- Sukaldari laguntzailea behar da Usurbilen. Interesatuak deitu 943370344
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko. 630274906
- Emakume bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaintzeko. 676221378.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. Egun osoko disponibilitatea. 679742413.
- LH eta DBHko klaseak ematen ditut euskaraz zein erdaraz. Magisteritza ikasia eta esperientziaduna klase partikularrak

ematen. 635209193.

- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Oporretako, ospakizunetako, edozein motatako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. 943555835/617242660.
- Etxeko lanak egin, pertsona helduak zaindu edo jatetxe batean lan egiteko prest nago. 610669335
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak zein pertsona helduak zaintzeko. 618434990.

Lan-eskaintzak

- Astebukaeratan lan egiteko zerbitzari bat behar da. 943 36 67 10.
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 620646769.
- Benta tabernan lan egin nahi baduzu deitu: 685757962.
- Kamarero edo kamarera euskaldun bat behar da Zumeta jatetxean. 943 36 27 13.
- Arratsaldean etxeko lanak egiteko emakume baten bila gabiltza 645403905.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Bigarren eskuko trikitixa bat erosiko nuke. 656 76 52 13.
- "Enciclopedia general ilustrada del Pais Vasco" Auñamendi enziklopediaren 80 tomo dauzkat saltzeko prezio oso onean. 635733984.
- Alfonso XIII garaiko zilarrezko txanpon

bat (duroa) galdu dut Kale Nagusian. Duen balore sentimentala dela eta eskertuko nuke itzultzea topatu denak. 943362725.

- Ondo zainduta duen norbaiti 3 urteko Setter Inglesa oparituko nioke. 645 735750.
- Benelli repetidora salgai 600 euro. Telefono zenbakia: 645 735750.
- Mercedes Vito Mixta 112CDI bat saltzen dut. Aire egokitua, kristal tintatuak, bigarren bateria, berogailu autonomoa, aurreko eserlekuak birrikariak, dena hornitua, ASR... 610431999.
- Faema markako lau besoko kafetera bat daukat salgai. 645708191.
- Citroen Sahara 2000 HDI VTS Cupe bat daukagu salgai. Oso ondo zaindua eta beti garajejan egondakoa. Extra asko ditu. 667272889
- 5 urte dituen Renault Megane Coupe bat daukat salgai. 637760852.
- Bizirik edo jateko garbituta antxumeak salgai. Baita bertako babarrun beltza eta baserriko oilaskoak ere 664774024.
- Tximenearako egurra salgai. Akazia, pinua eta pagoa. 664774024.
- Citroen Berlingo bat, kamara isotermikoduna salgai. 676453176.
- Snow egiteko tabla bat fijasioekin salgai. 679185102
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira, baita ezkontza, opor edota beste edozein ospakizunetako bideoak editatu ere. 617242660 /apore@euskalnet.net
- Bustner Fun modeloko 5 pertsonentzako karabana salgai. Tf. 629 680 214.

Txerrimunik ordainetan !

Zorionak laukote!

Otsailaren 18an Jon eta Iñigok, 20an Luisek eta 21ean Onintzak egin dituzue. Zorionak eta muxu potolo bana familia guztiairentzat.



Zorionak Xabat!

3 urte egin dituzu eta hiru muxu handi bidaltzen dizkizugu etxeko guztiak.



Zorionak Imanol!

Otsailaren 23an bi urte egingo dituzu, zorionak eta muxu handi bat denentzat.



Oharra: Merkatu Txikirako mezuak, zorion-agurrak, hildakoen edota jaioberrien aipamenik orri honetan ikusi nahi baduzu, deitu eta datuak eman honako telefonoz: 943 360 321. E-postaz ere jasotzen ditugu oharrak honako helbidean: erredakzioa@noaua.com.

JAIOTAKOAK

Garazi Tapia Aizpuru. Otsailaren 6an, Santuenean.

Kalkos kopisteria
FOTOKOPIAK
zuri-beltza · koloretan
BANDERA
SALMENTA
PINTORE KALEA 7 · LASARTE-ORIA
943 376 424 · 943 376 166 (FAX) kalkos@copiateriakalkos.com

Kima
MASAJE LEKUA
Kirol masajea eta masaje terapeutikoa
Kale nagusia, 44- behea
LASARTE-ORIA
TEL. 36 61 97



Bota euskararen amua eta ez duzu izango jasotakoaren damua!

Merkataritza euskalduntzeko helburuarekin Buruntzaldeko sei Udalek sektoreka egiten ari diren egitasmoen barne, oraingoan Buruntzaldeko arrandegietan euskararen erabilera sustatzeko 2006-07 egitasmoa aurkeztu dute. 2004 urtean abian jarri zuten kanpainaren hirugarren entrega da hau eta aurrekoetan arrainen izenak daramatzaten pintxoak izan baziren kanpainaren ardatz, oraingoan, aldiz, kontsumitzaileen artean egingo duten zozketa eta lehiaketan parte hartzera animatzeko prestatu duten kartela azpimarratu behar dira.



EZKER ESKUIN, JUAN MARI IRADI, TOÑI LANDA ETA MARIFER GOROSTIZA
2006-2007 KANPAINAREN AURKEZPEN EKITALDIAN.

Erosketa egindakoan arrandegian emango zaion esku-orria bete besterik ez da egin behar lehiaketan parte hartzeko. Bertan, arraina oinarri izango duen errezeta bat idazteko eskatuko zaio bezeroari eta arrandegian ikusgai egongo den kutxan sartu beharko du ondoren. Errezetak kutxetan sartzeko azken eguna martxoaren 16a izango da eta arrandegi bakoitzean 50 euroko hiru sari zozketatuko dituzte, bertan kontsumitu beharrekoak, martxoaren bukaera aldera.

Arrainaren nutrizio balioa

Organoak, ehunak eta infekzioen eta kanpoko agenteen aurka babesten gaituzten sistemak eratzeko eta mantentzeko

beharrezkoak diren proteinetan aberatsa da arraina. Baita bitaminatan -A, B, D eta E -eta mineraletan -iodoa, burdina, fosforoa, fluorra, magnesioa, kaltzioa, sodioa eta potasioa -.

Elikadura kontuetan adituak direnek, astean lau aldiz, gutxienez, jatea gomendatzen dute. Horietatik bitan, behintzat, arrain urdina jan behar da. Nutrizio aldea kontuan hartuz, plan txan, parrillan, labean, mikrouhin labean edo egosia eta olio gutxiarekin jatea, gisatua, frijitua edo ogi arrailetan eta arrautza-irinetan prestatua baino hobea da.

Arrain freskoa edo izoztua?

Elikagaia behar bezala izozten bada, freskoaren nutritzio-balio berak ditu

arrain izoztuak. Gaur egun, izozteko prozesu industrialak oso azkarrak dira eta itsas produktuen nutritzio-balioa, freskotasuna, zaporea eta kolorea mantentzen dituzte. Arrazoi horregatik, adituek diotenez, hobe da produktu izoztuak erostea, freskoa erosi eta etxean norberak izoztea baino.

Itsas produktuak hainbat modutan merkaturatzen dira

FRESKOA: kontserbatzeko tratamendurik gabe. Ontziratuak edo ontziratutakoak. Arrain osoa, xerrak, medailoiak, masailak, buztanak, etab.

IZOZTUA: ontziratuta edo ontziratutakoak.

GAZITUA: gatz arruntaren eraginpean luzaroan jarrita.

KETUA: gatzunetan jarrita, ondoren lehortua eta ketan edukitakoa.

LEHORTUA: aire lehorretan edo ura murrizteko beste tratamenduren batean jarritakoa bakteriek eragin ez diezaioten.

KONTSERBAN: berezko erara, oliba-oliotan, landare-oliotan, eskabetxean, saltsan, etab.

ERDI-KONTSERBAN: esterilizatu gabea, hoztuta kontserbatu behar da. Antxoaxerrak oliotan, adibidez.

MARINATUA: erdi-kontserba mota bat da. Ozpinetan edo azido organikoetan edukitakoa.

AURREKOZINATUA: sukaldeko azken tratamendua behar dute. Kroketak, adibidez.

PLATER PRESTATUA: berotu besterik ez dira egin behar jateko. Legatza saltsa berdean, piper-beteak, etab.

JANARI EGITURATUA: arraina oinarri duten produktuak. Surimia, gulak, etab.

ESPEZIEA	ARRAIN ZURIA	ARRAIN URDINA	ARRAIN ERDIKOIPETSUA
Anxoa		X	
Sardina		X	
Txiñardoa		X	
Berdel arruntak		X	
Legatza	X		
Zapoa	X		
Oliba	X		
Hogalutza (atunzina)		X	
Atuna		X	
Bakailaoa	X		
Mhi-arraina	X		
Lupin	X		
Izokina		X	
Urnuburua			X
Antxurina			X
Brigun			X



ZOZKETAN PARTE HARTZEKO ARAUAK

- 1.- Zoaketan parte hartzeko, erasketa bakoitzeko aukera bat izango da.
- 2.- Parte-hartzaileak bere datuak eta errezeta idatzi ondoren, orria marketatik moztu, eta egitasmoan parte hartzen duten arrandegietan harretarako jarriko den kutxatxoan sartuko du.
- 3.- Errezetak entregatzeko epea 2007ko martxoaren 16an bukatuko da.
- 4.- Zoaketa 2007ko martxoaren bukaera aldera egingo da. Herrietako komunika bideen bidez emango da horren berri zehatzagoa, baita arrandegi parte-hartzeileen bidez ere.
- 5.- Irabazleei telefonoz eta idatziz komunikatuko zaie.
- 6.- Saria kontsumitzeko epea hilabetekoa izango da, komunikabidetan agertzen den egunetik.

ANDOAINGO ARRANDEGIAK

Begoña Gomotxategi	Ondarreta kalea 4	943 300 245
Saldias	Zumea kalea 9	943 590 704
Ahorramas	Elizondo plaza (sezek. behe 2)	635 732 632
Super Amara	Gudarien etorbidea 36	943 468 426
Super BM	Plazola 1	943 592 881
Vitoria	Zuberoa 8	637 558 005
Bitoria	Eskola kalea 3	637 558 005
Eroski	Zumea 23	943 304 123

HERNANIKO ARRANDEGIAK

Amaia	Kardaberaz kalea 34	943 550 752
M ^e Carmen	Etxeberri auzoa 4	943 333 768
Otaegi	Gudarien plaza 11	943 552 831
M ^e Fe	Kale Nagusia 36	943 550 489
Oiarzabal	Meñe i Flaquer kalea 6	943 557 401
Itsaspe	Antziola auzoa 5	943 330 365

LASARTE-ORIAKO ARRANDEGIAK

Aresmar	Kale Nagusia 35	943 371 946
Michelin Coop. de Consumo	Urcin kalea 5	943 364 647
Charter	Sagardotegi kalea 2	943 371 576
Biona	Geltoki kalea 25	943 361 084

URNIETAKO ARRANDEGIAK

Itxaso	M ^e Iuramendi kalea 24	943 330 109
--------	-----------------------------------	-------------

USURBILGO ARRANDEGIAK

Pollo	Puntapax kalea 15	943 363 971
Mikel	Alperburu kalea 1	943 366 356

Txotx!!



Txotxetik sagardoa jarraitu mandat!

AIALDE BERRI

Tel.: 943 365 031
Mugikorra: 670 027 731 Santuenea



LARRE-GAIN
DOLARE SAGARDOTEGIA

Urtarriletik apirilera
TXOTX GARAIA
Ostiral, larunbat eta ingande
eguerdian IREKITA
Astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria **Ereñotzu - Hernani**
Tel.: 943 55 58 46 Mugik.: 616 287 867



SAIZAR
Betiko Sagardoa

Kalezar Auzoa, 39 • **USURBIL** • Tel. 943 362 228
www.sidrassaizar.com



ELUTXETA
SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.

Oztaran bailara • **URNIETA (Gipuzkoa)** • ☎ 943 55 69 81



ARRATZAIN
DOLARE-SAGARDOTEGIA

Egunero irekia.

info@agroturismoarratzain.com
Arratzainzar Baserria • Telf: 943 36 66 63



☎ 943 36 12 29

iruvin
sagardotegia

Iruin Sagardotegia | Astiazaran Sagardoak
Petritza bidea z/g. 20170 Zubieta **USURBIL**
www.iruinsagardotegia.com | www.astiazaransagardoak.com



Aginaga
Sagardotegia

Urte osoan txotxetik

ESTRATA kalea, 7
Aginaga auzoa, **USURBIL**
Tel. eta Faxe: 943 36 67 10
Tel.: 943 37 06 68
a.sagardotegia@aginasagardotegia.com